

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2022ko urtarrilak 28 • 1214. zenbakia

ATERPETXEA NEGU GORRIAZ BABESTEKO

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKi

ASEGURUAK

Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**

+ osasun gida

Dentistak



arar
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
hertz@klinikaosak.com
www.klinikaosak.com
Pedro Etxebarria 7, 3. 848

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibitate handien konutuko zentroa



IRAZABAL
clinica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Estetika



abontza
clinica estética

Dr. J. Ramon Fdez. Cuevas

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - Ibañeta 943 206 044



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

MAITANE G. INIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustin, 4 beheko solairua
943 537 076 - 688 964 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. uk. 943-702896

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
Fisioterapeuta

- FISIOTERAPIA
- KINESIOLOGIA
- PATRIKIA
- TRATAMENDUAK
- KINESIOLOGIA FISIOTERAPIA

FISIOTERAPIA ZENTRIA

ARRAQUETA, 20
Tfn. 943 58 26 42
ane.mendia@telefonos.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09:00rako 13:00rako 15:00rako 20:00rako
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnos. 943 20 72 17



Unzaga Plaza
Hertz Klinika - Clinica Dental

B. Izaguirre eta M. Orozco

Unzaga Plaza, 5 - 4. ezkerre Tel. 943 70 23 85

Ginekologia

Dra. Laura Martinez  **Dr. Alejandro Rocas**

GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / FACI
Ortodontzia / Implantak / Laser Teknologia

Erebol, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugiborro: 677 551 850



**Bi urte dagoeneko hitzartutakoa bete gabe**

Badira bi urte Eibarko Udalak "Gerraren aurka eta Gatazken Bakezko Erabakitzeen aldeko" mozioa onartu zuela. Hala ere, bi urte geroago onartutako konpromiso horrek bete gabe jarraitzen du.

2022ko urtarrileko "Alkateak Bakearen alde" adierazpenarekin estatuko 397 udalek bat egin dutenean, Eibar oraindik ez dago euren artean. Eta, Arma Nuklearrak Debekatzearen aldeko Itunaren alde Espainiako 74 Udalek sinatu dutenean, hor ere ez da Eibar agertzen. Ez dirudi gure "Udal Txit Gorenak" oso "txintxo" eta "zuhur" jokatzeko duenik sinatzen duenarekin.

Aipatutako mozioa ahobatez onartu zen instituzio-adierazpen bezala 2020ko urtarrilaren 21eko bozeramaileen batzordean. Eta berori horrela kaleratu zen ...eta kitto!-n urtarrilaren 24an, El Diario Vasco-n 23an eta Noticias de Gipuzkoa-n hilaren 26an.

Gerrarik Ez Eibar

"Urtero 3.000 milioi euro angulatan garraiatzen dira Europatik Asiarara. Sustainable Belen arabera, Europako angularen %23 esportatzen da urtero, legez kanpo, Asiarara, batez ere Txinara. Planetako faunaren aurkako krimenik handiena da. Droga edo arma trafikoa baino irabazi marjina handiagoa duen negozioa da: Europako arrantza bati 0,1 eurotan erosi angula eta, behin hazita, aingira bakoitza 10 euroan saltzen da Asian. Orain dela 60-70 milioi urte existitzen den familia da, dinosauroen garaitik bizirik atera zena eta, paradoxikoki, oso dibertsifikazio gutxi duena: hainbeste urteko existentzia eta berrogei urteko gainbehera. Espezieak aurreko krisi klimatikoetan erakutsi du oso ale gutxitatik abiatuta suspertu ahal izan dela".

ERIC FEUNTEUN, itsas ekologoa

"Euroak hogeitun urte bete berri ditu. Azken datuen arabera, euroko 140.900 milioi txanpon daude zirkulazioan eta haien balioa 31.150 milioi eurokoa da. Zirkulazioan diren txaponen ia erdiak (%48) zentimo batekoak eta bikoak dira. 50 zentimoko, euro bateko eta biko txanponak txanponen %15 dira. 50 euroko billeteak dira zirkulazioan gehien jarri diren billeteak. 27.640 milioi billete zabaldua daude; horietatik 50 euroko billeteak %48 dira, %16 20 eurokoak; %10, berriz, 10ekoak, eta %7 bostekoak. 500 euroko billeteak jaulkitzeari laga zitzaion ezkutuko ekonomiarako erabiltzen zirelako (burbuilaren urteetan, lau billetek bat Espainian zegoen); ez dira desagertu, baina 2016tik kopurua %38an murriztu da. Haren hutsunea 200 euroko billeteak bete du, tarte berean lau bider igo baitira. Egun, 500 euroko lau billetek hiru Alemanian daude. Munduan gehien erabilitako diruaren bigarrena da euroa, dolarren ondotik".

EUROAK 20 urte

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

NUONOR- Nor edo nor, norbait. "Nuonor izan da amen gauzak nastatzeko".

NUONORA.- Nora edo nora, nonbaitera. "Nuonora urten dau ezer esan barik iñori".



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285**FAXA** 943 20 28 72**ASTEKARIAREN E-MAILAK**erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitate@etakitto.eus**ELKARTEAREN E-MAILAK**elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo**ADMINISTRAZIOA**

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOAMaitane Campos eta
Malen Illaramendi**HIZKUNTZA ARDURA**

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

8.150 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





San Andres egoitzako enpresa-batzordeak "aurreikuspen eta baliabide falta" dagoela salatu du

>>> San Andres zaharren egoitzako enpresa-batzordeak eta CCOO, LAB, ELA eta UGT sindikatuek adierazi dute Gipuzkoako Foru Aldundia ez dela bere arauak betetzen ari eta, ondorioz, gerontologikoaren erabiltzaileen eta langileen osasuna arrisku larrian jartzen ari dela. "30 lagun daude kutsatuta dagoeneko", adierazi dute CCOO-etik.

Sindikatuaren arabera, "2020an egoitzaren gestioa Kabilia Aldundiaren sozietateak hartu zuen eta antolakuntzan aldaketak egin zituen. Esan zutenenez, pandemiaren aurrean arriskuak murriztea zen asmoa, baina sindikatuek neurriak nahikoak ez zirela salatu genuen". Eta zera gehitzen dute: "Aldundiak sektorizazioaren

argudio faltsua erabili zuen. Hau da, infektatuta dauden pertsonak banatzea, baina ez zuen baliabiderik eman hori horrela izateko. Ondorioz, langileek pertsona infektatuak eta ez infektatuak artatu behar dituzte txanda berean, gaitza hedatzeko duen arriskuarekin".

Erizain falta dagoela salatu dute sindikatuek, ohiko lanorduz aparte ordu gehiago eskainiz. "Egoera jasangaitza da, kudeaketa hau ez da onargarria pertsona nagusiek izan behar duten kalitatezko-antentzioaren estandarren arabera. Beraz, CCOOk hartu beharreko neurriak hartzea eskatzen du, gaia salatu arren egoitzaren zuzendaritzak jaramonik egin ez duelako", adierazi dute sindikatutik.

Txertaketari buruzko hitzaldia egingo da bihar Elgoibarren

>>> COVID-19aren kudeaketa-ri buruzko iritzi kritikoa duten elgoibartar eta mendarotarrek osatzen duten Iratzargailua taldeak txertaketari buruzko hitzaldia antolatu du biharko Elgoibarren. Juanjo Martinez zirujau irundarra arituko da berbetan, 12:00etatik aurrera Maalako parkean. Azaldu dutenez, "geroz eta mediku, biologo eta osasun aditu gehiago ari dira txerto horien eraginkortasuna zalantzan jartzen, txertoek albo ondorioak eragiteaz gain, sistema immunitarioa jaisten



dutela salatuz". Hitzaldian gaur egungo egoerari buruzko bere iritzia azaldu eta jendearen galderak erantzungo ditu.

Bihar Bilbon egingo den manifestaziorako deia

>>> Bihar Bilbon "Burgesiaren diktadura gelditu! Ofentsiba ekonomikoa eta politikoa borrokatu" goiburuari jarraituta egingo den manifestazioan parte hartzeko deia egin du Gazte Koordinadora Sozialistak. Mobilizazioa 18:00etan hasiko da, Jesusen Bihotza plazatik abiatuta.

Koordinadoratik adierazi dutenez, "hitzordu garrantzitsua dugu urtarrilaren 29an. Indarrak batu eta azken urteetako ofentsibari aurre egiteko unea da, ezarritako neurri bidegabeak salatu eta erantzuleak seinalatzeko momentua. Gazte langileen egoera etengabe okertzen ari da. Soldata baxuen truke lan egiten dugu, praktika kontratu negargarriekin, aste gutxi batzuetako edo hila-



beteko iraupena duten behin-behineko kontratuekin, ordu estrak sartuz eta behin baino gehiagotan ordaindu gabeko lanorduak burutuz. Aurrezteak, egonkortasun minimo bat lortzea edo etorkizunerako planak egitea ezinezkoa da egungo baldintza ekonomikoekin".



LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera



www.publiresa.com

publiresa@publiresa.com

943 701 497 / 615 799 419

Armagin, 3-5 behea

merchandising



serigrafia



lanerako erropa





Erisono handitzeko 16 milioi euroko inbertsioa egingo du Eusko Jaurlaritzak

>>> Aurreko astean bildu ziren Jon Iraola alkatea eta Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua. Harekin batera Itziar Epalza Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen zuzendaria eta Txaber Ouro Sprilurreko zuzendaria etorri ziren udaltxera. Tapiak jakinarazi zuenez, Erisono handitzeko 16 milioi euro emango ditu Jaurlaritzak. Hiru fasetan garatuko dituzte lanak eta, horri esker, sei erakin izango ditu parkeak. Proiektuaren lehen fasea urte honen amaieran (edo 2023aren hasieran) lizitaziora ateratzea da asmoa. Sprilurrek gauzatuko du proiektua eta Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak kudeatuko du. Jaurlaritzak finantzatu arren, Next Generation Europako Funtsen bidez finantzatu ahal izango dela adierazi zuen sailburuak, proiektu hori funts

horiek lortzeko aukera gisa aurkeztu baitzuten.

Bilera ostean pozik azaldu zen alkatea: "Erisonoko Parke Teknologikoa handitzeko prozesua abian jartzea aspalditik espero genuen eta, beraz, oso albiste ona da. Bide luzea eta latza izan da eta, asmo hau bultzatu ahal izateko beharrezkoak diren laguntza eta finantzaketa lortzeko bilera ugari egin ditugu Udalaz gaindiko eragile eta erakundeekin".

Albistearen harira, Josu Mendicute EAJ-PNV alderdiko bozeramaileak bere esker ona adierazi nahi dio Eusko Jaurlaritzari, "azken urteotako albisterik onenetakoa" dela gaineratuta. Bere berbetan, "Erisonon 16 milioi euro inbertitzeak, kalitatezko enpleguaren eta, beraz, hiriaren etorkizunaren aldeko apustua egiten dutela esan nahi du".



Hondatuta dauden baldosak aldatuko dituzte Urkizun

>>> Urkizuko parkean hondatuta dauden baldosak aldatzeko lanak hasi ditu Udalak, auzokoek hala eskatu eta gero. Zehazki, Urkizuko 22. zenbakiaren eta dorreen arteko igarogunean dagoen azalera (137 metro karratu) konponduko dute otsaileko lehen hamostaldian eta lanek 17.100 euroko kostua izango dute.

Udalaren arabera, "parkeko zoruak baldosa gris lisoko egiturabat dauka eta urteekin hondatzen joan da. Asteroko azokara joaten diren saltzaileen ibilgai-luentzako nahitaezko pasabidea da eta horrek ere eragin du baldosak hondatzea. Gainera, egungo azalera arriskutsua da oinezkoentzat, irristakorra delako eta jendea jausi daitekeelako".

Presoen eskubideen aldeko ekitaldia

>>> Hileroko martxan, gaur urtarrileko azken barixakua dela eta, Azken Ostirala izeneko ekitaldia egingo da Untzagan, 19:30ean hasita. Euskal presoen eskubideak bete ditzatela eskatzeko kontzentrazioa Etxerat eta Sare elkarteek antolatzen dute eta herritar guztiei luzatu nahi diete gonbidapena.



MARIA MARTINEZ GARCIA

2022-1-24

"Betirako gure bihotzetan.
Maite zaitugu"

ZURE FAMILIA





Eskola-kirolari berrekingo zaio asteburu honetatik aurrera, etena eta gero

>>> Asteburu honetatik aurrera haurrek eskola-kirolaren lehia- ketari ekin ahal izango diote berriro. Labi teknikoak gazteen artean kirol jarduera horri berriro ekitea erabaki zuen martitze- nean, Euskal Autonomia Erkidegoan kutsatzeen datuek behera egin ondoren.

Dagoeneko eman diete erabakiaren berri Foru Aldundiei ere, diputazioena baita eskola-kirolaren inguruko eskumena. Entrena- menduei eustea erabaki arren, ikasleek lehiaketa eten egin behar izan zuten, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak urtarrilaren 5ean agindutako neurri berriak iragarri ondoren. Protokolo berri honek urtarrilaren 28ra arteko indarraldia zuen.

Ia 15.000.000 euroko aurrekontua izango du Debabarreneko Mankomunitateak

>>> Aurreko astean aurkeztu zuen Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak 2022rako aurrekontua: 14.890.565 euro izango ditu aurtengo jardune- rako, iaz baino %2,66 gehiago. Kopururik handiena hiri-hon- dakinak gaika biltzeko zerbi- tzura bideratuko da, 9 milioi euro baino gehiago. Gainerako 4 milioi euro pasak kale-garbi- ketarako izango dira. Atal horre- tako inbertsiorik handiena ma- kina berriak (makina garbitzaile elektriko bat, sasiak garbitzeko makina elektrikoa eta presio bi- dezko garbiketa-makina) eros- teko egingo dute. Iosu Arraiz erakunde presidentea esan- dakoaren arabera, “zerbitzuen kalitateari eustea” da helburua.

Aipatutako bi horiekin bate- ra, honako partidak indartuko dituzte: langile gastuetara bi- deratutakoak (hiru lanpostu gehiago sortuko dituzte); edu- kiontzi-irilen garbiketarakoa; herriz herri ematen dituzten organikoendako poltsak eros- tekoa; eta Mankomunitateko ibilgailuak berritzeko.



Bestalde, Mankomunitateak 26.000 euroko bi partida berri txertatu ditu 2022ko aurrekon- tuan. Partidetako bat legeak eskatzen duen Jasangarritasun Energetikoaren Plana gauza- tzeko (erakundearen eragin- kortasun energetikoa bultzatze- ko) izango da eta bestea, berri- z, Mankomunitatearen ibilgai- luak energetikoki eraginkorra- goak diren beste batzuegatik aldatzeko dauden aukerak az- tertzeko erabiliko dute.

Eibarrek 942.000 euro jasoko ditu Estatuaren funtsetatik, pandemiaren kalteak arintzeko

>>> Espainiako Gobernuak 25,1 milioi euro banatuko ditu Gipuzkoako udalen artean pan- demiak eragindako “kalte eko- nomiko eta sozialak konpon- tzen laguntzeko”. 1.964.839,15 euro Debabarrena eskualdeko herrien artean banatuko dituz- te, eta Eibarri, zehazki, 942.000 euro transferituko zaizkio.

Gipuzkoako udalek oinarri- zko zerbitzu publikoak (osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbi- tzuak) indartzeko erabili ahal izango dute ekarpen hau, eta “beste eskumen batzuk baliat- zeko ere erabil daitezke”, adie-



razi zuen Markel Olano Gipuz- koako diputatuak urtarrilaren 13an Donostian hainbat alkate- rekin egin zuen bilera batean.

Jarduera kirurgikoari berriz ekiteko ahalegina egiten ari dira Osakidetzan

>>> Osakidetza jarduera kirur- gikoa berreskuratzen hasi da, asistentzia-eremua tenkatuta egon arren. Hala adierazi du Gotzone Sagardui Osasun Sail- buruak aste honetan egindako agerraldian. Esandakoaren ara- bera, ospitale nagusi batzuk, goizeko ordutegian, jarduera kirurgikoaren % 80-100 inguru

izaten ari dira. Gainera, Sail- buruak jakinarazi du “ez dela bazterten arratsaldeetan ere programatutako jarduera kir- urgikoari berriro ekitea, bal- din eta pandemiaren bilakaera onak jarraitzen badu”. Hainbat faktore tartean direla, kirola- noetan langile gehiago egoteko aukera dagoela dio Sagardui.

Pentsiodunek bat egin dute Lehen Mailako Arreta hobe eskatzen duten langileekin

>>> Lehen Mailako Arretaren zerbitzua hobetzeko borroka-rekin bat egin du Eibarko Pentsionisten Taldeak eta, azaldu dutenez, osasun arloko langileekin batera anbulatorio eta osasun zentroetan elkarretaratzeko jarraitzeko prest daude: "Penagarria da Osakidetzak, Osasunbideak eta Gasteizko eta Iruñako gobernuek pandemiari aurre egiteko baliabide eta plantillarik ez izatea". Gaineratu dutenez, "konponbideak eta neurriak ezartzeko ezintasuna ez da gauza berria, baina pandemiak areagotu egin ditu gabezia horiek guztiak. Egoerak gaituta, maskarak eta anti-

geno-testak eta PCR probak ordaintzera behartzeaz gain, pandemiaren kontrolaren ardura bera ere gure gain jarri dute".

Horrekin batera, hilaren 15ean lau urte bete zituen pentsiodunen mugimenduari garrantzia kendu nahi dietenek esandakoei erantzun diete, beraiek kontrakoa nahiko luketen arren "pentsionisten mobilizazioak benetan garrantzitsuak eta indartsuak" direla azpimarratuta: "Lehenik eta behin, gure inguruan ez delako ezagutzen beren aldarrikapenen garra bizirik eusten duen beste mugimendu sozialik astero 5.000 eta 6.000 lagun in-



guru mobilizatuz, eta 12.000 baino gehiago ia hilero egiten diren manifestazio probintzietan, euskal pentsiodunen mugimenduak egiten duen bezala".

Horrekin batera, astero kontzentrazioak antolatuta erakutsi duten gaitasunarengatik izango ez balitz, pentsiodun askoren egoera are okerragoa

izango litzatekeela oso argi daukate. Gainera, pentsioen aldeko borrokaren inguruan gizartearen sektore ezberdinen babes geroz eta handiagoa daukatela pentsatzen dute eta, horregatik, aurrera begira mobilizazioekin jarraituko dutela adierazi dute beste behin, eskatzen dutena lortu arte.

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

M^a MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 ezk.
Tel. 943 20 17 03
Fax. 943 70 20 49
m_ari_sanz@hotmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



Eztula sendatu edo ez, San Blas opilak barrura

Eztulari inoiz baino kasu gehiago egiten diogun sasoiari, iritsi da Eibarko tradizioak ekarri digun erremediorik ezagunena: San Blas opila (edo, bestela, opila bera bedeinkatzera eramaten den oihala edo baita zintak ere, Juan San Martinek 'Antzinako Eibar liburuan jaso zuenaren arabera). Osasunaren Mundu Erakundea ez da ados egongo, baina zerbait gozoa dastatzeko aukera izango dugu horrela gutxienez.

Otsailaren 3an, San Blas egunean, opilak bedeinkatzeko ohitura oso zabaldua dago. "Egia esan, Santu honen inguruan bestelako ohiturarik ere bada, baina Euskal Herrian bereziki janariak bedeinkatzea ohi

da. Nafarroan gazta, zaia, ogia, lukainak... eta beste jaki batzuk eramaten dira elizara", dio Juan San Martinek bere liburuan. "Gipuzkoan, jeneraliki, ogia, artoa eta beste janari batzuk bedeinkatzen dira, urtearen barna eztarriko gaitzez

diren oiloei emateko", gehitzen du.

San Martinek dioenez, "Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugen inguruko herrietan eta Goierrin oso zabalduta dago opilak bedeinkatzea", Eibarren bezala. Antzinako ohitu-

ra da eta, lehen, San Blas irudia Santa Iñes ermitan gordetzen zuten, Isasiko jauregiaren baratz inguruan, jendea hara joaten zen bedeinkatzera. Gero, ohitura San Andres parrokiara pasa zuten, opilak ez ezik, laranja ere eramatera, San





Ezkerreko argazkian, San Blas opilak bedeinkatzen San Andres parrokiari. Eskuinekoan, berriz, Azitainen

Martinek gogoratzen duenez. “Maiz, zalantza larrian irteztenginen, bedeinkazio orduan opilak eta naranjak ahalik goren altxatzen genituen arren ia ur-bedeinkatu tantarik heldu zaigun ala ez”, dio.

Opilak egiteko ikastaroa

Opilak, hasiera batean, artoirinez egiten ziren, baina San Martinek ezagutu zituen lehenak bi eratakoak ziren: “Irin fiñez, inoiz esne txorroztan bat orean gertatzen, azukre pizkat ere bai, eta egosterakoan azukrea gainean bota (sagar zatiak, okarapasak eta mahaspasak jartzen zituenak ere baziren) eta era honetara azala gozatzan zen; beste erakoa da orain ezagutzen dugun bararra, irin, esne ta arraultza

gorringoz oreatu, anis tanta batzuk, eta erdizka egosirik dagoanean labatik atera eta ur, zuringo eta azukrez gertatzen den orean gainean jarriaz berriz labaratu. Bigarren era hau, esan dugunez, gure egunotan egiten dena da”, zioen 1993an.

“Oraingo erako opilak gozotegi edo konfiterietan erosten ziren orduan”

San Martinek dioenez, “gu haurrak ginela etxe aberatsetakoek edo ekonomiaz hobeto bizi ziren familietakoek bakarrik egiten zuten oraingo opilak; pobreak ogi gozatu hura izaten genuen. Egia esan, oraingo erako opilak gozotegi edo konfiterietan erosten ziren orduan, baina egiteko errezeta eta etxeetako labak hedatuaz eta hobetuaz joan diren neurrian aldatu zen opil fiñagoak soilik egiteko ohitura”.

Gaur egun ohikoa da San Blas opilak dendan erostea, baina asko dira opilak etxean egitearen tradizioari eusten diotenak ere. Opilak nola egin ikasi nahi izanez gero, Arrate Kultur Elkartean ikastaroa eskainiko dute bihar, 11:00etatik 13:00era, elkarteko lokaletan,

Edurne Zenarruzabeitiaren eskutik.

Izena emateko edo informazioa eskatzeko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 638 284 912 telefono zenbakira deitu.

Opilak bedeinkatzeko ordutegia

San Blas opilak egin edo erosi ondoren, bedeinkatzea da ohiturak markatzen duena. Horretarako, herriko elizetan zenbait meza egingo dira ordu hauetan: 10:30ean Urkiko elizan, 10:30ean Azitainen, 11:00etan eta 12:00etan San Andres parrokiari, 11:00etan eta 19:00etan Karmengo Amaren elizan (Karmelitan), 11:00etan San Pio X elizan, 12:00etan San Agustinen eta 12:00etan Amañan. ■

● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

T. Etxebarria, 13
943 20 63 22

ANTXA
GOZOTEGIA

San Blas opila errezeta

Sukaldari bakoitzak bere errezeta izango du, baina guk honako hau proposatzen dizuegu San Blas opilak egiteko. **Edurne Zenarruzabeitiak** eman zigun errezeta eta beheko QR kodea eskaneatuz opilak nola egiten diren ikusi dezakezue.

OSAGAIAK (6 opil egiteko)

- Dozena bat arrautza (hortik hiru zuringo hartu)
- Irina: 2 kg
- Azukrea: 750 g
- Legamia: sobre bat
- Koipea edo gurina: 150 g
- Anis esentzia: hodi bat



PAUSOAK

1- Osagaiak ondo nahastu eta oratu katilu batean. Irina pixkanaka joan botatzen eta, pixka bat gogorra dagoenean, estalki edo mahai gainean irina ipini eta nahasketa bertan bota.



2- Masa egin, eskuekin ondo nahastuz. Irina gehitzen joan, masak eskatzen duenaren arabera. Masa estalkian, mahaiaren edo eskuetan pegatzen ez denean, ondo egongo da.



3- Masa sei zatitan banatu eta forma eman. Forma emateko, irina bota eta botila edo arrabolarekin masa zabaldu.



4- Bi opil laban sartzeko prest dardenean, laba berotzen jarri (180°) eta, bitartean, blanketa egin. Horretarako, hiru zuringoak elur-punturaino irabiatu. Ondoren, azukre-hautsa bota eta 10 minutuz irabiatu.



5- Laba bero dagoenean (180°-190°), forma duten masa zatiak sartu 20 minutuz. Laba guztiak berdinak ez direnez, begiratzen joan behar da eta, zure gustura txigortzen denean, atera.



6- Labatik ateratzerakoan, opilak estalkiaren edo mahaiaren gainean jarri eta hoztu baino lehenago gainean zuria edo blanketa jarri koilararen atzeko aldearekin. Blanketa jarri ondoren, lehortzen laga ordu batzuetan (arratsaldean eginez gero, hurrengo eguneko goizera arte).



BEHERAPENAK E I B A R R E N



#EibarrenBadakagu

T. Etxebarria, 19
943 20 76 51
cedrymoda@gmail.com

Cedry

azken aukerak
beherapenetan

ZENTRAL
OPTIKA

Ego-Gain, 2 943 70 14 08

%50ra arteko
BEHERAPENAK

Ez galdu bistatik
gure beherapenak

xAre

%50era arteko beherapenak

Zuloagatarren,1
943 536 764

xareibar
www.xareibar.com

Ibarkurutze, 6 943 12 71 06
info@irritsamoda.com

iRRITSA

BEHERAPENAK / AZKEN ERREMATEA

Otsailaren 1-etik 5-era

Zorionak

Kids & Party

Jugueteria Educativa

%20 arteko beherapenak

www.Jugueteriazorionak.com

P^a URKIZU, 3. EIBAR. 943 543 097 - 648 870 514

Zuloagatarren, 7
Tfnoa. 943 20 62 24

Tribeka

Oinetakoak

%50era arteko
Beherapenak

LENTZERIA MERTZERIA OUTLET

TXUKUNA

15€
20€
25€

943 821 308
Eulojio Garate, 1

%20 eta **%30**eko BEHERAPENAK

el vestidor

Errebal, 14 607 92 68 86

BEHERAPENAK
%60 - %50
OUTLET ESPARRUA

#EibarrenBadakagu



Bi urte Zaldibar Argitzeko zain

Otsailaren 6an beteko dira bi urte Zaldibarren Verter Recycling enpresaren zabortegia amildu eta, azpian harrapatuta, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran hil zirela eta, hondamendiaren bigarren urteurrenerako proposamen bateratua lantzen ari dira Zaldibar Argitu plataformako kideak. Besteak beste, otsailaren 6an Eitzagara martxa egingo da, 12:00etan Ermutik abiatuta, Aldaketaldia plataformaren ekimenez. Horrekin batera, Eitzagan oroimenerako monolitoa ipiniko da eta Zaldibar Argituk itxiko ditu ekitaldiak, 13:00ean.

Bi urte beteko dira laster Zaldibarko zabortegia hondoratu zenetik. Bi urte luze, herritarren ekimenez eratu zen Zaldibar Argitu plataformak erantzukizunak eta gertatutakoa argitzea eskatzen hasi zenetik. Baina oraindik ez die inork erantzunik eman.

Zabortegiaren auzia epaitegiatara joango zela jakin zenean, gertatutakoa bertan argituko zutela pentsatu zuten askok. Baina, denborak aurrera egin ahala, geroz eta zailagoa ikusten da ezer argituko dutenik.

Zaldibarko zabortegiko hiru arduradunak, Fiskaltzak eta biktimen familiek akordioa egin zuten 2021eko irailean. Hitzartutakoari jarraituz, hiru akusatuek sei hilabeteko kartzela zigorra onartuko zuten, zuhurtziagabekeriazko giza hilketa eta langileen segurtasunaren kontrako delituengatik. Kartzela zigorra ez betetzea adostu zuten alde biek, baita fa-

miliei ordaindu beharreko kalte-ordainaren zenbatekoa ere.

Hala ere, Durangoko epaitegiari Zaldibarko zabortegian izandako hondamendian ingurumenaren kontrako deliturik egon ote zen, hau da, ingurumenean eragin zuen kaltea aztertzea dagokio eta, kausa horretara lotuta, Jose Ignacio Barinagari, Verter Recycling enpresako jabea, ingurumenaren eta osasun publikoaren aurkako delitua leporatzen diote.

Barinagarekin batera enpresako arduradun nagusia den Juan Etxebarria ingeniaria, zabortegiko ugazabarekin batera, Zaldibarko zabortegian gertatu zen luiziarren harira deklaratu behar zuten Durangoko epaitegiaren iazko abenduan, baina ez deklaratzeko eskubidea baliatuta ez zuten inolako azalpenik eman. Arrate Bilbao enpresako kudeatzailea, berriz, ez zen joan, COVID-19a zuelako.

Hiru auzipetuen abokatuak iazko abenduan egindako adie-



razpenen arabera, orain arte bildu duten informazio guztiarekin, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren ingurumen unitate bereziko adituei txosten bat egin dezatela eskatu die. Eta epaitegiko aditu batek beste ikerketa bat egingo duela gaineratu zuen. Durangoko epaitegiaren parean abokatuak esan zuenez, "zabortegiari buruzko ikerketak aurrera

jarraituko du" eta beste hainbat kontu aztertuko dituzte, tartean bi langileen gorpuak bilatzeko eta ondoren mendi-magala egonkortzeko egin ziren lanei buruzkoa.

Aste honetan aztertu du Europako Parlamentuko eskaeren batzordeak Sallabenteko auzokideen elkarteak, Zaldibar Argitu herri-plataformak eta Bizkaiko Ekologistak Martxan elkarteak aurkeztutako eskaera: zabortegian izandako istripuari dagokionez, hondakinen eta zabortegien kudeaketa arautzen duen Europako Batasunaren legeriaren balizko arau-hauste bat ikertzea. Baina, ondorioztatu dutenez, "Batzordeak ez du ikusten agintariak Batasuneko legeria urratzen dutenik. Espainiako prozedura judizialaren bilakaeraren jarraipena egingo du, eta ikuskatuko du neurri zuzentzaileak, itxiera eta zabortegiaren birgaitzea Batasuneko legeriaren arabera osatzen direla". ■

Ekialdea Bai auzo elkarteak eratu dute kaltetutako auzokideek

Estaziño-Azitaín bitartean trenbidea estali eta gainetik pasealekua egiteko asmoa zegoela jakina zen, baina, beste proiektu batzuekin gertatzen den bezala, kasu honetan ere azkenean ez zutela ezer egingo pentsatzen zuten inguru horretan bizi diren askok. Baina iazko urrian egoera erabat aldatu zen eta, horrekin batera, ordura arte lasai bizi zirenen bizitzak hankazgora jarri zituzten agintariek. Kezkak eta beldurrak bultzatuta, bizilagunek Estaziño-Azitaín plataforma sortu zuten eta, pauso bat aurrera emanda, “No al paseo que nos entierra-Ekialdea bai” auzo elkarteak eratu dute orain. Orain arte inork ez die proiektuari buruzko informazio zehatzik eman, baina dakitenarekin kalera irtetzen hasi dira, eibartarrei azaltzeko prest.

Eibarko behealde edo ekialdean bizi direnek “No al paseo que nos entierra-Ekialdea Bai” izeneko auzo elkarteak osatu dute, “auzoa suspertu, defendatu eta zaintzeko” asmoz. Esaten dutenez, “helburu nagusia bizitzeko hiri hobe bat lortzea da, gure bizi-kalitatearen sustapena bermatuz. Hori dela eta, hirigintza arloko hobekuntzak proposatu nahi ditugu, baita Eibarko garapena landu ere”.

Asmo nagusi horrekin batera, elkarteak eratzera bultzatu dituen proiektuaren kontra daudela argi adierazi nahi dute bizilagunek: “Estaziño eta Azitaín artean trenbidea estaltzearen aurka gaude. Kilometro baterako 18 milioi euroko aurrekontua duen proiektuari buruz ari gara, hain zuzen ere. Ez du zerikusirik Amaña auzoan egindakoarekin. Obra berri honetan, kalte handia egingo baitzaie etxebizitzetara eta bizilagunei, euren gainetik pasatuz eta bizilagunen bizi-kalitatea zuzenean kaltetuz: iluntasuna eta kutsadura akustikoa inposatuz, irisgarritasuna bermatu barik... Gainera, estetikoki eta, batez ere, ingurugiroaren ikuspuntutik, basakeria hutsa da”.

Electrociclos, Barrena eta Barakaldo inguruan bizi direnen ustez, “alternatiba argi bat



ELKARRIZKETAREN BIDEOA IKUSTEKO

dago, Barrena kalean apustu sendo eta irmoa eginaz. Proposamen honek Azitaín-Elgoibar bidegorriarekin lotura zuzena izango luke eta nabarmen lagunduko lioke auzoari: den-dei, bizilagunen bizi-kalitateari, giro sozialari, herritarren osasunari eta, oro har, Eibarko herriari”.

Aurrera eginez gero bizilagun asko kaltetuko dituen proiektuari buruz oso gauza gutxi dakitela eta, horrekin kezkatzen dira: “Argi daukagu auzoak biziberrituko duen proiektu bat ezin dela bizilagunen kontra joan eta gure beharrak ezagutu gabe burutu. Inolaz ere ez. Izan ere, nola da posible auzo bat suspertu nahi izatea auzoak alde batera utziz eta bizilagunak lurperatuz? Nola da posible auzo bat berpiztu nahi izatea bizilagunen iritzia eta beharrak ezagutu gabe? Astakeria hau gelditu beharra dago!”.

Asteburuan informazioa emateko mahaiaik kalean

Gauzak horrela, urtarrilean zehar herriko hainbat lekutan informazio-mahaiaik jarri dituzte, Udalak eta E.T.S.k (Eusko Trenbide Sarea) zer egin nahi duten eta bizilagunek alternatiba gisa zer planteatzen duten herritarrei azaltzeko, eta hala egingo dute asteburu honetan, gaur eta bihar.

Electrociclosen bizi diren Oscar San Martín eta Leire Bercianosek trenbide gaineko pasealekuaren proiektuak nola eragiten ari diren kontatu digute, “gau asko daramatzagu loa hartu ezinik, kezkaren kezkaz” gaineratuta.

Electrociclosekoak Babes Ofizialeko Etxeak dira eta 2008an joan zen jendea bertara bizitzera. 2019an entzun zuten lehenengoz beraien etxeen parean, trenbide gainetik, pasealekua egin nahi zutela: “2019ko azaroan Beheko Tokian egindako auzo-bileran jakin genuen zer egiteko asmoa zegoen. Bilera horretara alderdi politiko bakoitzetik ordezkari bana etorri zen eta, nahiko lasai geratu ginen, garai har-

tan proiektuaren alde zegoen alderdi bakarra PSE-EE zelako. Elkarrekin Podemos, EH Bildu eta EAJ-PNV, hirurak proiektuaren kontra agertu ziren eta. PSE-EEK hau martxan jarri ahal izateko gehiengorik ez zuenez, nahiko lasai gertatu ginen. Baina, orain, iazko urrian PSE-EE eta EH Bilduren arteko akordio ekonomikoa tartean dela, Bilduren babesa lortu dute eta hortik etorri da gure sorpresa. Egoera aldatu dela ikusita, mobilizazioekin hasi gara. Auzokoak eta inguruan bizi direnak biltzen hasi gara, honen aurrean zer egin daitekeen denon artean aztertzeko. Estaziño-Azitaín kalte-tuen plataforma eratu eta joan gara pausotxo batzuk ematen, “No al paseo que nos entierra-Ekialdea bai” izeneko auzo elkartea eratu dugun arte”.

Etxea aldatzeko eskaintza

Urte horretan bertan, 2019an, Udalak etxe-trukaketa bat eskaini zien: “Hau da, bajuetan bizi garenak, 16 etxebizitza gutzira, hemendik irtetzea eta Egazelaira, San Kristobal auzoaren goikaldera joatea proposatu ziguten. Eusko Jaurlaritzak han promozio bat egingo zuela eta hara joateko aukera izango genuela esan ziguten. Hala ere, eskaintza horren inguruko zehaztasunik ez ziguten eman, ez ziguten azaldu zeintzuk izango ziren baldintzak, datarik... ez beste ezer. 2023an etxe horiek amaituta egotea zegoen aurreikusita, baina 2022an gaude eta han ez da ezer egin”.

Edozein modutan ere, zehaztasun barik egindako eskaintza hori ezerezean geratu zen 2020an: “Orduan Hirigintzako buru zen Jon Iraolak akordio hori bertan behera lagatzea pentsatu zuen, trenbide gaineko pasealekuaren proiektuan hobekuntza batzuk egin zirela argudiatuta. Eta orain arte ez dugu horren inguruko ezer jakin, informazioa jaso barik jarraitzen dugu, nahiz eta komunikabide batzuetan etxe-trukaketaren gaia berri ere mahai gainean jarri duten”.



Horren guztiaren aurrean gauzak ez direla horrela egiten diote: “Orduan, pentsatzen dugu hau ez dela serioa. Benetan zerbait egiteko asmoa badago, jendearekin bileraren bat egin beharko litzatekeela uste dugu, azalpenak eman eta zerbait eskaintzeko. Gainera, benetako eskaintza bat egingez

Udalak proiektuari buruzko informazio zehatza eman beharko lukeela pentsatzen dute auzokideek

gero, bizilagun batzuk agian etxea aldatzeko prest egon daitezke, baina beste batzuk ez dute horrelakorik nahi. Zentzu horretan haserre gaude, sentitzen dugu adarra jotzen ari direla”.

Trenbide gaineko pasealekuaren proiektuari aurrera egiteko bidea, neurri handi batean

behintzat, Eibarko Udalean PSE-EE eta EH Bilduk adostutako akordioak zabaldu zuen, baina horri buruz ere ez zien inork ezer esan, informazioa prentsaren bitartez hedatzen hasi zen arte: “Gu prentsaren bitartez enteratu ginen, beste eibartar guztiak bezala. Horren ondoren, Udalak bilera bat egin zuen, azalpen batzuk emateko, eta bizilagun batzuk joan ziren, zer esaten zuten entzuterako. Pegoa bakoitzeko bizilagun bateri esplikatzeko ere proposatu ziguten, gero beste auzokideei berak kontatzeko. Baina guk informazioa zuzenean jaso nahi dugu, eta ez etxe-barruko norbaiten bitartez”.

Informaziorik ez

Ooraindik ez dute proiektuari buruzko informazio zehatzik jaso eta, beraz, ez dakite zer egin nahi duten zehazki: “Horren zain gaude. Pentsatzen dugu informazio hori oso interesgarria izango dela ez bakarrik guretzat, baizik eta eibartar guztiarentzat. Zer egin behar den ondo jakitea, zehaztasun osoz: nondik sartu eta irtengo garen, zenbateko aurrekontua dagoen, nola ordaindu behar den. Europako funtsekin ordainduko dela esaten dute, baina badakigu Europatik etortzen den diruaren erdia baino gehiago maileguen bitartez ailegatzeko dela, eta mailegu horiek bueltatu behar direla, eta interes batzuk ordainduta. Horren inguruan ere ez dakigu ezer, zehaztasun falta ikaragarria dago. Udalak gauza asko dauzka esateko, baina modu zuzen eta jator batean, eta ez egunkari baten bitartez”.

Proiektuari buruz dakiten apurra paper gainean ikusi dute: “Plano gainean ikusteko aukera izan dugu, baina gutariko gehienok ez dakigu plano gaineko hori interpretatzen. Ez digute maketarik ez besterik erakutsi. Hala ere, ikusi dugun gutxi horren arabera, pasealekua etxe batzuetatik oso-oso gertu pasatuko dela ikusten da. Ez bakarrik Electrociclo-



Azken asteotan auzo elkarteko kideak kalera iritzen ari dira, herriko toki ezberdinetan mahaia ipini eta eibartarrei informazioa emateko.

sen, Barrenan, Asua Errekan eta baita Barakaldo kaleko etxe batzuetan ere”.

Electrociclos eta inguruak eibartar askorentzat toki ezezagunak izango direla eta, jendea bertara joatera animatu nahi dute: “Hrritarrak gonbidatuko nituzke hona etorri eta zuzenean tokia nolakoa den ikus-

teko: etxeak non dauden, trenbidea nondik doan, katenariak nolako altuera hartzen duen... Ideia bat egiteko, pasealekuak hartuko lukeen altuera bost edo sei pisuren altueraren parekoa litzateke, pentsa!”.

Beraiekin berba egin barik, aurrera eraman nahi duten proiektuarentzat alternati-

bak egon badaudela uste dute: “Lotura naturalena Barrena kaletik litzatekeela pentsatzen dugu. Bidegorria zabaldu zenetik, Barrenatik zenbat jende pasatzen den ikusten dugu egunero. Orduan, egin dezagun ganorazko zerbait. Udalak esan du Gabilondo erosteko asmoa duela, erabili

bariko beste tailer eta eraikin batzuk ere badaude... Nahi izanez gero, pasealekua bertatik pasatzeko aukera bada, oraindik ere posible dela proiektua beste modu batera bideratzeko. Guk ere nahi dugu pasealekua egitea, baina 0 kotan, mendia desegin eta ingurumena kaltetu barik”.

FUNEUSKADI
Grupo Anitza

FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

TANATORIO E BAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

HO EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Otaola, 29
Hezkuntza Esparrua

MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 11ra arte
13:00ak arte

ALEMANA, FRANTSESA eta INGELESA: A2, B1, B2 eta C1
EUSKARA: A2, B1 eta B2

MATRIKULA EGITEKO:
<https://ikasgunea.euskadi.eus/es>

ARGIBIDE GEHIAGO: www.eoieibarheo.hezkuntza.net
eoieibarheo@gmail.com
943.89.92.75



Etxegabeentzako aterpea

Eibarko karmeldarren elizan (Karmen kalean) kokatzen den neguko aterpeak abenduaren 1ean ireki zituen ateak, eskualdeko etxegabeei zerbitzua eskaintzeko asmoz. Ohea, higiene pertsonala, arropa garbitzeko aukera eta jatekoa ematen diete erabiltzaileei urteko hilabeterik hotzenetan (apirilaren 15era arte), hainbat urtetan faltan izan den behar bati erantzuna emanez.

DKT (DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA)

Debabarreneko Gipuzkoako udalek, hau da, Debak, Eibarrek, Elgoibarrek, Mendarok, Mutrikuk eta Soraluek, neguko dispositiboa jarri dute martxan etxegabeei ostatu emateko. Iraganean zenbait saiakera egin dira horrelako zerbitzuak eskaintzeko, baina orain arte ez dute proiektu komunikagaratu ahal izan eta pozik daude egitasmo honek izan duen harrerarekin.

Idoia Sarasketa Eibarko Udaleko Gizartekintza saileko arduradun politikoa dioenez, “gai horretan eskualdea zorretan zegoen”, nahiz eta azken urteotan zenbait proposamen eta ekintza egin diren. “Orain dela hiru urte neguko aterpea ireki genuen Eibarko Azitain kalean dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan, baina ikusi genuen ez zela tokirik egokiena. Iaz, Matsaria kalean Udalak dituen etxebizitza batzuetan eta Untzaga Hotelean aterpe zerbitzua eskaini genuen;

eta, pandemia hasi zenean, Deban dagoen Santiago Bideko ostatua etxegabeentzako ireki zuten”, azaldu digu zinegotziak. “Debabarrena osoari ematen zitzaion zerbitzua, baina ez zegoen toki askorik. Ekintza puntualak izan ziren, protokoloa 3 gradutik jaisten zen egunetan aktibatzen zen”, gehitzen du.

Salbuespenetik harago joan eta beharrari erantzun integrala emateko asmoz, aterpea Eibarko karmeldarren elizan ezartzeko aukera sortu zen eta erlijiosoek parez pare ireki zituzten ateak proposamenari, instalazioak doan eskainiz. “Asko eskertzen diegu keina eta, gauzak ondo, akordioa urte gehiagorako luzatzeko aukera izango dugu”, diosku Sarasketak. Momentuz aterpea ez da urte osoan zehar egongo zabalik, neguan bakarrik, baina eskualdeko udalen zorra arintzeko balio izango du eta, Sarasketak esan digunez, erakundeak “harro” daude lortutakoarekin.

Abenduan 13 erabiltzailek 71 gaualdi egin zituzten karmeldarren elizan dagoen aterpetxean

14 plaza arrunt

Neguko aterpeak 14 plaza arrunt ditu gaua non pasatu ez dutenentzat. Zerbitzua jaso nahi dutenak eskualdeko udal eta gizarte zerbitzuekin, gizarte hezitzaileekin, Gurutze Gorriarekin, Osakidetzarekin, Caritasekin, udaltzainekin edo Ertzaintzarekin harremanetan jarri behar dira, eta egunero erabiltzaileen zerrenda bat osatzen du Eibarko Udaltzaingoak. 20:00etan amaitzen da izena emateko epea, baina norbait beranduago agertzen bada

eta plazaren bat libre bada, sartzeko aukera izaten du. Horrela, erabiltzaileek gaua pasatzeko aukera izaten dute, hilean bost aldiz gehienez.

Azken egunetan bezala hotz handia egiten duenean, sei plaza gehiago jartzen dituzte eskuragarri. Gainera, egonaldi ertaineko beste lau plaza daude, “baina plaza hauek lortzeko gizarte langileek erabiltzaileen txostena egin behar dute eta erabiltzaileek euren bizitza bideratzeko konpromisoa hartu behar dute”, azaldu digu Sarasketak.

Plaza arrunt bat lortzeko baldintza hauek bete behar dira: norberaren higieneari eta zentroko higieneari buruz langileek emandako jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzea, jokabide-nahasterik ez edukitzea edo bertako elkarbizitza normala larriki nahas dezakeen portaerarik ez izatea, ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasun fisiko edo psikologikoa ez edukitzea, eta zerbitzuak eskaini ezin dituen osa-



Sukaldari batek afariak eta gosariak prestatzen ditu aterpetzeko erabiltzaileentzat. EKHI BELAR



Logela gehienetan bi ohe eta komuna daude, baina badago sei ohe dituen logela familiarra ere. EKHI BELAR

sun-laguntza espezializatuen beharra ez edukitzea. Gainera, bizikidetzak egokia izateko zenbait arau jarraitu behar dituzte.

Aterpearen funtzionamendua

Aterpetxeak 20:00etan irekitzen ditu ateak goizeko 10:00ak arte, eta atea gurutzatu bezain laster teknikariek harrera egiten diete erabiltzaileei. Erabiltzaileek COVID protokoloa bete behar dute une oro eta sarreran armairu batzuk dituzte euren gauzak lagatzeko. Eskailerak igotzean (igogailua

ere badago) jangela, sukalde, garbiketarako gela eta logelak aurkitu ditzakete, eta balkoi-ira irteteko aukera dute nahi izanez gero. "Logelak bi ohekoak dira, komunarekin, baina behar izanez gero sei oheko logela familiarra ere badago", esan digu Sarasketak.

Erabiltzaileak bi integratzaile eta hezitzaile baten begiradapean daude aterpetxean eta, euren beharrei erantzuna ematen saiatzeaz gain, arazoak ekiditeko edo konpontzeko daude. Horrez gain, sukaldari batek

Neguko aterpeak 14 plaza arunt, sei plaza hotz handia egiten duen egunetarako eta egonaldi ertaineko lau plaza ditu

afaria eta gosaria prestatzen ditu, eta garbitzaile bat dago.

Eskaerak gora urtarrilean

Aterpea zabaldu zutenean, abenduaren lehen astean, ez zuten erabiltzailerik jaso, baina handik aurrera jendea etortzen hasi zen. "Horrelako kasuetan ahoz ahokoak funtzionatzen du, jendeak horrela izan du batez ere zerbitzuaren berri", diosku Sarasketak. Abenduan 13 erabiltzailek 71 gaualdi egin zituzten eta, batez beste, pertsona bakoitzak bi gau egin zi-

tuen. Abenduan erabiltzaile gehien egon ziren egunetan sei lagun elkartu ziren, baina urtarrilean hotz gehiago egin du eta egun batzuetan 11 lagun elkartu izan dira.

Zinegotziak esan digunaren arabera, hara eta hona dabilen jendea etortzen da aterpetxera, horrelako zerbitzuak hilean bost aldiz erabili ahal izaten dituztelako gehienez eskualde guztietan. Horrela, jatorri ezberdinetako jendea elkartzen da, baina euren arteko bizikidetzak ona dela esan digu Sarasketak. "Gainera, orain dela gutxi emakume bat izan dugu, nahiko gauza arraroa dena, eta ez da inongo bizikidetzak arazorik egon", dioenez.

Erakundeak pozik daude aterpetxearen egitasmoak izan duen harrerarekin eta eskaintzen duen zerbitzuarekin, eta datorren hilabetean eskualdeko udal-teknikariak aterpetxean elkartuko dira bere funtzionamendua gertutik ezagutzeko. "Gainera, herritarrentzat ateak ireki nahi ditugu ondoren, gaia ondo ezagutzeko eta kontzientzia hartzeko", amaitu du zinegotziak.

Neguko hotzari aurre eginez

Temperatura egokia etxean

Zenbat eta berokuntza-tenperatura altuagoa izan, orduan eta kostu energetiko handiagoa izango da eta, beraz, askoz gehiago ordaindu beharko dugu hilabete amaieran. Garrantzitsua da ingurunea berotzen laguntzen duen tenperatura moderatua ezartzea. Egokiena 18 eta 20 gradu inguruko tenperatura da. Tenperatura horrekin giroa atsegina da eta baita epela ere. Profesionalek termostatoa programatzea aholkatzen dute; etxe barruko tenperatura nahiko baxua denean bakarrik pizten da aparatua. Horrela, asko aurreztuko dugu eta neguko hilabeteetan ez dugu faktura baino gehiago ordainduko.

Ehunen garrantzia

Isolamenduaz eta berogailuaz gain, ehunek ezinbesteko eginkizuna dute etxea bero egoteko. Etxean egoteko arropak termikoa izan behar du neguko tenperatura baxuei aurre egiteko. Mantak erabiltzea ere ondo dago etxeko gela bateko giroa atsegina izan dadin. Beste aholku bat leihoetan gortina lodiak jartzea da, etxeko beroak kanpoaldera ihes egin ez dezan.

Alfonbrak ezin hobeak dira neguko hilabeteetan ohikoak diren tenperatura baxuei aurre egiteko orduan. Etxe bateko beroa zorutik igarotzen da normalean; horregatik garrantzitsua da hainbat alfonbra jartzea etxeko gune ezberdinetan, hala nola egongelan edo logeletan. Ikusten duzue, ehunen erabilera funtsezkoa da etxea beroa eta atsegina egoteko orduan.

Zein da berokuntza-sistematik onena?

Zaila da berokuntza-sistematik onena zein den erabakitzea, faktore askoren arabera baita, baina, azken batean, berokuntza-sistematik onena etxebizitzara, erabiltzailearen beharretara eta poltsikora egokitzen dena da.



Txalet baterako berokuntza-sistematik onena geotermia da, zulaketak egiteko lekua duelako eta epe luzera aurreztea dakarrelako, energia gutxi kontsumitzen duelako eta ez duelako mantentze-lan handirik behar. Geotermia-instalazio bat 15 urtetan amortizatu ohi da. Berokuntza-sistema horren desabantaila da instalazioaren prezio altua; dena den, horrelako kopururik ez badugu, beti geldituko zaigu gas naturala, merkea eta eraginkorra baita.

Solairuetarako berokuntza-sistematik onenak gas naturalekoak izaten dira; izan ere, leku gutxi izaten dute aerotermia instalatzeko eta ez dituzte geotermia instalatzeko baldintzak betetzen. Gainera, gas naturala oso segurua eta merkea da, eta merkaturatzaileen eskaintza ugari ditu.

Udako etxeetarako berokuntza-sistema merkeenak elektrikoak dira, ez baitute instalaziorik behar, eta energiaren prezioa ez da oso altua, anekdotikoa baita berogailuari udan ematen zaion erabilera.

Untzaga, 11 / 943 20 27 73
almecalefaccion@almecalefaccion.com

Laguntza Teknikorako
Zerbitzu Ofiziala

BAXI
De Dietrich

ame
alme calefacción, S.L.

TAILERRA:
Errekatxu, 3

CLIMALITekin isolatzaile
onena lortuko duzu
akristalamendu bikoitzaz

ACHA Kristaldegia

ERAKUSKETA: eta faxa: 943 20 39 03
Arikixaneko Zubian info@crystaleriaaacha.com

IZARRAITZ
LEIHOAK-ERREFORMAK

Leihoak - Pertsianak - Manparak - Ateak
Parketa - Era guztiko erreformak
Pegoren konponketa...

Bidebarrieta, 48 EIBAR (SONIA)
Tel. 943 25 60 26 ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com


ARRIAGA
SANEAMENDUAK

Saneamendua - Ur hotza eta beroa
Gasa - Kalefakzioa
Bainugelen erakusketa

Arragueta, 2 bis A. Tel.: 943 20 20 34
adm.arriagu@gmail.com

Ondo isolatutako leihoak, energia-aurrezpen segurua

Ihes egiten duen energia gehiena leihoretatik irteten da. Ondo isolatuta ez badaude, beroaren %30 ere gal daiteke.



Leiho bat aukeratzeko orduan, funtsezkoa da haren formari, markoaren osagaiei eta beirei arreta jartzea. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) arabera, beirak hutsunearen hiru laurden hartzen ditu; beraz, kanpoaldearekin truke termikoak egiteko arrisku handiena duen zatia da. Horregatik da funtsezkoa akabera on bat aukeratzeko.

Gomendagarria da ganbera-beirak edo kristal bikoitzak erabiltzea, UVA (Beira Isolatzailearen Unitatea) izenez ezagutzen direnak. Horien barruan aire-kamera bat dago, barrualdearen eta kanpoaldearen artean isolamendua emateko gai dena. Energetikoki eraginkorrenak argon gasez beteta daudenak direla diote adituek.

Markoaren materiala ere oso garrantzitsua da. Material arruntenen artean, zura eta PVC dira isolatzaile onenak, batez ere sei ganberako profil hutsa duenean (aukerarik garestiena ere bada).

Ez da gomendagarria metalezko markoak aukeratzeko, material hori eroale termiko ona baita eta ez baitabil ondo isolatzaile gisa. Horrelako markoak aukeratu gero, garrantzitsua da zubi termikoaren haustura ziurtatzea.

Agur eraikinen berogailu zentralari

2020ko abuztuaren BOEn aurkeztutako Errege Dekretuaren arabera, Espainiak agur esan dio berokuntza zentralari; izan ere, instalazio termiko zentralizatuak dituzten etxebizitzak behartzen ditu kontsumitzaile bakoitzaren energia termikoaren kontsumoa neurtzeko banakako kontagailuak instalatzera, bai lehendik dauden eraikinetan, bai eraikuntza berrietan.



Ekimen hori etxe bakoitzak bere kontsumoa ordaintzeko egiten da, eta dekretuak ezartzen du 2023ko maiatza baino lehen instalatu behar direla gailu horiek.

Orain arte, berokuntza-sistema zentrala zuten eraikinetan bizi zirenek hileko edo urteko gastu finko batzuk ordaindu behar zituzten, zerbitzu horiek erabiltzeko aukera emateagatik, zerbitzu horiek erabili ala ez.

Dekretuak etxeetako energia-gastua murrizteko asmoa du eta bat egiten du Europar Batasuneko zatirik handienean indarrean dagoen araudiarekin.

fonta.amana@gmail.com

AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anita 12 Tel. 943 201 930

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.

Bidebarrieta, 28 - behea
Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

Calbeton, 23
943 12 07 91

Azpiri
EIBAR • AMOREBIETA • DONOSTIA

Matsaria, 2
943 20 35 12

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637

Jardines Iturgintza
Jardiñeta, 11 B
info@fontaneriajardines.net



Errealitate ezberdinak argitara

Matraka! Eibarko neska* gazteen taldeak eta Furia Disidente Madrilgo talde transfeminista eta LGBTIQ+ak Eibarko Jardunaldi Transfeministak antolatu dituzte otsailaren 5erako. Ekimen honen bitartez transfeminismoaren gaia mahai gainean jarri nahi dute, herrian horretaz berba egin dadila, historikoki ikusezinak izan diren errealitate ezberdinak argitara eramanez.

Matraka! eta Furia Disidente taldeek egun osoko egitaraua antolatu dute, transfeminismoaren gaia ulertzeaz, horretan sakontzeaz, hausnartzeaz, eztabaidatzeaz eta zabaltzeaz gain, elkar ezagutzeko, zalantzak argitzeko eta, errespetuz eta segurtasun osoz, jai giroan egun atsegina pasatzeko.

Bizatitan banatu dute eguneko egitaraua. Goizean eta arratsaldean zenbait hitzaldi eskainiko dituzte Portaleko areto nagusian: 10:00etan, 'Matrakaren ponentzia'; 10:30ean, 'Transfeminismora sarrera'; 11:00etan, 'Kontzeptuen gida'; 12:00etan, 'Normaren dekonstrukzioa'; 13:30ean, luncha eta bazkaltzeko denbora; 16:00etan, 'Transtetik berbetan'; 17:00etan, 'Monogamiak ez'; eta 18:30ean, eztabaida egingo da. Hitzaldiak gazteleraz egingo dira, baina xuxurlariak egongo dira nahi duenarentzat.

Antolatzaileek esan digutenaren arabera, "gaur egungo gizartean oso naturala dirudi pertsona bat cisheterosexual bezala identifikatzea, jaiotzen garenetik gure parte bat izango balitz bezala, eta beste kategoriak arazo bezala ikustea. Horregatik, jardunaldi hauek gauzak agian horrela ez direla esateko balio behar dute. Hau da, pertsona bat heterosexuala bezala identifikatzea gehiago dela botere erlazioen kontu bat gauza biologikoa baino, eta gauza bera gertatzen da homosexualitatearekin, bisexualitatearekin...".

Jardunaldi hauen bitartez diskurtso ezberdinak mahai gainean jarri nahi dituzte, gure errealitatea beste modu batean ulertzeko. "Horregatik, pertsona guztiei begira eskaini nahi ditugu jardunaldiak, ez bakarrik kolektiboko jendearentzat. Gai hauetaz berba egitera edo hausnartzera ohituta ez dagoen jendearengana heldu

"Pertsona guztiei begira eskaini nahi ditugu jardunaldiak, ez bakarrik kolektiboko jendearentzat"

nahi dugu lengoaia irisgarria erabiliz eta, hortik abiatuta, zalantzak argitu, ideiak eman, bizipenak aurkeztu, kritika egin eta ezagutza komuna eraiki", esan digute antolatzaileek.

Jaia gaztetxean

Hitzaldi eta solasaldien ondoren, aisialdiaren txanda iritsiko da, baina beti ere ikuspegi kritikoari eutsiz. "Hitzaldietan lantzen dena ez da hor geratu behar, egunerokora eraman behar ditugun gaiak dira eta

aisialdian ere barneratu behar ditugu", diote antolatzaileek.

Jaiaz gozatzeko asmoz, karrro-poteo aldarrikatzailea egingo da 19:30ean, eta gero, iluntzean, gaztetxeak ateak irekiko ditu. Bi emanaldi egingo dira bertan: Maruxak Travesti DJ showa eta Feten Señorak.

Jardunaldi Transfeministetan parte hartzeko, Matraka!-ren Instagramean aurkitu daitekeen izapide bat betez eman behar da izena eta hiru sarrera-mota eskaintzen dituzte: 3 euro goiz eta arratsaldeko egitarauaz gozatzeko, 5 euro gauekorako eta 7 euro egun osokorako.

Antolatzaileek "ilusio handiz" antolatu dute egitaraua eta, euren eustez, "zaila da horrelako programa bat edozein herritan ikustea". Transfeminismoa lantzeko orduan Eibar erreferente izan daitekeela uste dute eta jardunaldietara hainbat tokitako jendea etorriko da. ■



T. Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com



- **Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **Finantziatorako Bidea:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **Informazio Pertsonalizatua**

ETXEBIZITZA, GARAJE eta LOKALEN Salerosketa eta alokairua



TORIBIO ETXEBARRIA

85 m². Barrizeko. 2 terrazekin.
Pisu altua, bista zabalekin.
Iggogailua 0 kotan.
CEE D. 95 kwh/m² urtean
20 kgCO₂/m² urtean



BLAS ETXEBERRIA EL CASCO

218 m². 5 logela. Guztiz berriztua.
CEE E. 214 kwh/m² urtean
45 kgCO₂/m² urtean



IFAR KALE

115 m². 2 ganbarekin. Berrizteko.
Prezio interesgarria
CEE/CAPV/2019/00167508 E



ZEZEN BIDE

77 m². 3 logela. Egongela,
sukalde eta 2 komun. Egoera
onean. Garaiea aukeran.
CEE F. 291KWH/m² urtean
62 kg CO₂/m² urtean



URKIZU DORREAK

103 m². 4 logela. Egoera onean.
CEE/CAPV/2020/00179519 E



URKIZU PASEALEKUA

70 m². Guztiz berriztua.
Bista zabalak.
CEE/CAPV/2021/00204218 E



BISTA EDER

81 m². 3 logela. Egongela,
sukalde-jangela eta 2 komun.
Iggogailua 0 kotan.
CEE E 165 Kwh/m² urtean
35 kg CO₂/m² urtean



IFAR KALE

60 m². Berrizteko. Ganbareekin.
Iggogailua 0 kotan.
CEE D. 108 kwh/m² urtean
23 kgCO₂/m² urtean

Midoriak egiten ikasteko tailerra egin dute aste honetan ...eta kitto!-n



>>> Eguaztenean dozena bat lagun elkartu ziren ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan midoriak egiten ikasteko ikastaroan. Arima Cool Elkarteko Urko eta Aitziberren gidaritzapean nor bere estiloko bidaia-koadernoak egin zituzten. Koadernaketa egiteko sistema erraza da eta gomak erabili zituzten horretarako. Liburuxkak eta azala egiteko, berriz, kartulina, oihalak eta disei-

nu eta kolore desberdinetako paperak. Koaderno koloretsu eta bereziekin pozarren irten ziren ikastarotik parte-hartzaileak.

Midoria bidaia-koaderno berezia da eta Japonian du jatorria. Barruko aldean hainbat liburuxka ditu, kendu eta jartzeko modukoak, eta bertan idatzi eta jaso ditzakegu gure bidaiaren nondik norakoak: joan aurretikoak, planak, marrazkiak, argazkiak... Neurri aldetik txikiak dira eta, beraz, soinean eramateko erosoak.

Hau izan da ...eta kitto! Euskara Elkar-teak Illunabarrian programaren barruan antolatu duen urteko lehenengo ekimena, eta aurrerantzean etorriko dira gehiago. Hurrengo otsailaren 15ean izango da. Argazki-transfer tailerra izenekoan irudien transferentzia egiten irakatsiko da. Argazki edo irudi bat egurrera transferitzen ikasiko dute parte-hartzaileek ikastaroan, pieza bitxiak sortuz. Izerna emateko: 943 20 09 18 / elkartea@etakitto.eus



Eibarko berbalagunak hartu ditu aste honetan berriro Makina Erreminta Museoa

>>> Aurreko asteko taldearen atzetik, bigarren talde bat gerturatu da gaur bertan Elgoibarko Makina Erreminta museora. Barixaku goizetan elkartu ohi diren berbalagunak osatutako talde batek bisitatu du goizean museoa. Bailarako historia industrial bertatik bertara ezagutu dute berbalagunek. Makina-erremintak martxan ikusi dituzte, museoak XIX. mendean erdialdera gure eskualdean zeuden mekanizazio-tailerretako bat erreproduzitzen du-eta. Gertuko historiaz jabetzeko eta belarria eta mingaina praktikan jartzeko



aukera ezinhobea eskaini die Elgoibarko museoak Eibarko berbalagunei.



Urkizuko parkeak hartuko du gaur Barixakuak Jolasian ekimena

>>> Torrekuaren lekukoa hartuta, Urkizu aldera egingo du gaur arratsaldean Barixakuak Jolasian ekimena. Arratsaldeko 17:00etan hasita ordubeteko jolas-saioa eskainiko du ...eta kitto! Euskara Elkartearen ekimena lau begiraleren laguntzarekin. HH3 eta LH2 mailen arteko umeentzako jolasak izango dira, doan. Osasun-neurriak zaintze aldera, umeak etorri ahala joango dira taldeak osatzen.



Gaur banatu da Txikitto!-ren urtarrileko alea

>>> Gaur eguerdian jaso dute Lehen Hezkuntzako ikasleek Txikitto! hila-betekariaren urteko lehenengo alea. La Salle ikastetxeok Historiaurreari buruz ikasitakoa, amonaren "Goxua" egiteko errezeta, ikastetxeetako berriak, txisteak, liburuak irakurtzeko gomendioak, bitxikeriak... eta beste hamaika gauza biltzen ditu jada kalean dagoen urtarrileko aleak.



88 urtera Deporreko plaka bueltan

Artistikoki balio handia duen plaka damaskinatu hori Klub Deportiboak 1934an eman zion Antxon Bandres Azkue mendizaleatasunaren bultzatzaileari, klubeko Ohorezko Bazkide izendatzearekin batera.

Tolosan 1879an jaio eta Bilbon 1966an hildako Antxon Bandres errepublikazalea izan zen, industria-gizona eta hainbat enpresako kontseilaria izatetik aparte; eta, jendearen osasunarekin arduratuta, mendi-irteerak bultzatu zituen herritarren artean. Sustatzaile bezala, 1914an mendi-lehiaketak sortu zituen kirol hori egiteko, mendi-gainetan buzoiak kokatu eta klubetako txartelak egitearekin batera; 1924an Alpinismoko Federazio Euskal Nafarraren sortzaileetakoa izan zen, (Elgetan egindako ekitaldian lehenengoko presidente izendatu zuten); eta 1926an gaur egun oraindik editatzen den Pyrenaica aldizkaria sortu zuen, Federazioaren komunikazio-organo bezala.

Ondo gordetako plaka

Arraten Eibarko Klub Deportiboak emandako ondo merezitako plaka hori eta berarekin lotutako hainbat dokumentu, tartean ekitaldiaren argazkia, Bandresen familiak gorde izan ditu orain arte. Kasualitateak ere bere pisua izaten du kasu askotan eta iazko iraillean, Gorbeia mendilerrotik euren txangoa egin ondoren, Deporreko mendizaleen talde bat Murgiako Areso jatetxera joan zen bazkaltzera: "Aurretik ere egonda ginen bertan, beste txango batzuetara joanda". Alberto Montoya jatetxeko arduradunak ea Eibarko Klub Deportibokoak ziren galdetu zien eta, bere burua Antxon Bandresen iloba lez aurkeztuz, gordeta zuen altxorraren berri

eman zien. Momentuan bertan, "besterik eskatu barik", plaka damaskinatua eman zien, dokumentazioa eta orain dela 88 urte ateratako argazkiarekin batera.

Mendizaleak, jakina, pozarren bueltatu ziren eta, Deporreko Zuzendaritzari plaka entregatzerakoan, bertako kideek, hartutako ezustearekin batera, gozatzeko aukera ere izan zuten "artistikoki duen balioaz aparte, historikoki ere baduelako interesa". Plaka Klubak hamar urte zituen eman zitzaion Bandresi (1934an) eta berriro jasotzeko ilusioa egin die Klub Deportibokoei, batez ere hemendik bi urtera mendeurrena egingo duelako eta "hori behar den bezala ospatzeko prestaketetan badihardugulako dagoeneko".

Mendeurrenerako bi urte

1924an ehun urte egingo dituen klubaren zuzendaritzak, plaka bueltatzean Alberto Montoyak izandako detailearengatik eskerrak emateko, esker oneko eskutitza eman zion Murgian bertan urriaren 23an. Klubaren izenean presidentearen eskutik jaso zuen karta hori. Horrez gain, aipatutako plaka Deporren bertan kokatuko dute, "bitrina batean, bazkide eta bestek ikusteko aukera izan dezaten". Azkenik, hartutako erabakien artean, Alberto gonbidatzeko asmoa dute, "Bandresen ilobak kluba ezagutzeaz gain, plaka eman zitzaion Arrate ere ezagutzeko aukera izan dezan".

Beheko irudietan, Arrateko 1934ko eta iazko urriaren 23ko ekitaldietako uneak.



Arrate Eibar Eskubaloiko talde guztiak, baita harrobikoak ere, garaile azken asteburuan

>>> Beste asteburu bikain bat bizi izan zuten gure herriko eskubaloiko klubeko ordezkariak, lehen taldetik hasi eta kadete mailakoekin amaitzeko. I. Nazional Mailako Arratek garaipen argia eskuratu zuen Hondarribian, sailkapeneko hirugarrenari zortzi golengatik irabazita. Il Capo Hondarribia Bidasoak amore eman zuen hasieratik partiduko "benetako Capoa" izan zenaren aurrean eta Fernando Fernandezek mutilek sei puntuko alde dute bigarrenarekiko lehen itzulia amaitu denean. Euskal Ligako emakumezkoen lehen taldea izan da eibartarren artean partidua irabazi ez duen bakarra, baina ondo jokatu barik ere azken segundoa berdintzea lortu zuen. Senior maila horretako bigarren taldeek, bestalde, nagusi izan ziren: nesken taldeak 29-11 garaitu zuen Egia eta mutilena 27-29 nagusitu zen Usurbilen.

Harrobiari erreparoa eginez, jubeniletan neskak irabazle izan ziren Usurbilen (13-36), Basaurin (16-18) eta

Ipuruan Lacturale Bera Beraren aurrean (24-21), eta gauza bera mutilek Ipuruan (31-28 Loyola Indautxuri eta 29-19 Urrietari) eta Bidebietan Bera Berari gailenduz (22-24). Kadete mailako nesketan, azkenik, beste lau garaipen lortu zituzten eibartarrek: Ipuruan Aialaren aurrean (30-21) eta kanpoan Loiun (San Adriani 14-26 irabazita), Zarautzen (Urdanetari 18-26) eta Orion (Sukiari 21-25).



Eibar Rugby Taldeak Corteva Cocos hartuko du etzi Unben

>>> Iberdrola Ligako gure herriko taldeak partidu esanguratsua jokatu du domekan, 11:00etatik aurrera, Sevillako Corteva Cocos talde gogorraren aurka. Sevillarrak bigarrenak dira Ohorezko Mailako sailkapenean, justu eibartarren aurretik, eta jokoan izango diren puntuak pisu handia izango dute azkeneko sailkapenean. Eibar Rugby-k 26 puntu ditu gaur egun, andaluziarrek lau gehiago (30) eta Majadahonda lehen sailkatuak 32.

Ohorezko B Mailan jokatzen duen gizonen Eibar

Rugby Taldeak, bestalde, garaipen bikaina eskuratu zuen azken asteburuan Donostian jokatuako partiduan, Bera Berari 20-33 nagusituz. Garaipen horrekin sei onenen artean sartu dira sailkapenean.



Arraten amaituko da Euskal Herriko Itzulia apirilaren 9an

>>> Apirilaren 4tik 9ra jokatuko den Euskal Herriko Itzulia zehaztu dute dagoeneko zein izango diren astelehenetik zapatuta arteko sei etapetako hasiera eta amaiera tokiak. Hondarribian ekingo zaio Itzulari, erlojupeko batekin. Biharamunekin etapa osoa Nafarroako lurretan ibiliko da, Leizatik atera eta Vianako helmugan amaitu

arte. Hirugarren etapak Laudio eta Amurrio lotuko ditu, Araban barrena ibilita. Laugarren etapa Gasteizen hasi eta Zamudio amaituko da, Bizkaian. Bosgarrenak Zamudio bertatik irten eta Mallabian izango du amaiera. Azkenik, zapatuko seigarren etapa Eibarren abiatu eta Arraten amaituko da, iazko azken edizioan bezalaxe.

Urbateko waterpolo taldeak postu gorenetan daude

>>> Azken asteburuan ere nahiko garaipen errazak lortu zituzten Urbat-Urkoen klubeko taldeek eta, hori dela-eta, lidergoaren inguruko borrokan jarraitzen dute Eibarko waterpolistek. Horrela, senior mailako gure bi ordezkariak euren sailkapenetako bigarren postuei eusten diete, emakumezkoen taldeak Orbean Portugaleteko Nauticari

9-2 gailendu eta gero, eta gizonen taldeak Gasteizen Lautadari 4-15 irabazi ondoren. Asteburuan jokatu zuen gure herriko hirugarren taldeak, kadete mistoen mailakoak, 10-6 irabazi zion Urganari, partiduan hasieran markagailuan 1-3 atzetik joan ondoren; orain arte jokatuako partidu guztiak irabazita, liderrak dira sailkapenean.



Smartbank Ligako lidergoan da Gaizka Garitanoren taldea

>>> Aurreko astelehenean Almerian liderrari 0-2 irabazita, Exposito eta Quique Gonzalezen golei esker 2. Mailan jokatzeko duen Eibar FT lidergora iritsi da. Andaluziarrekin puntuetara berdinduta, Garitanorenak lider dira gaur egun aurkariei Ipuruan ere irabazi zizketelako lehen itzulian. Bigarren itzuliko hiru jardunaldi jokatu dira dagoeneko eta Eibarrek Realaren bigarren taldeari irabazi zion Ipuruan Gabon Zahar egunean, Oviedon bana berdindu zuen eta orain Almerian nagusitu da.

Hurrengo partidua Ipuruan izango dute bihar arratsaldean, 18:15ean hasiko den neurketan, Huesca aurkari dutela. Iaz Eibarrekin batera 1. Mailatik jaitsitako talde aragoiarra eibartarrendik urruti dago sailkapenean, 16 puntutara, baina liga honetako lehen jardunaldian erraz irabazi zion Eibarri Huescako El Alcoraz zelaian. Goiko postuei dagokienez, une honetan Eibar eta Almeria daude gorenean, Valladolidek bi puntura jarraitzen die, Tenerifek hirura eta Ponferradinak lau-



ra. Girona seigarren postuan dago, igoera fasea jokatzeko aukera eskaintzen duen azkenean, eibartarrendik zortzi puntutara.

Emakumezkoen Iberdrola Ligan, bestalde, Eibar FT-k Madrid hartuko du Unben etzi, goizeko 11:30ean. Puntu garrantzitsuak daude jokoan.



Sonia Dominguez eta Delta podiumetik gertu geratu ziren.

Beste bi eibartarren debuta Uncastilloko txakurkrosean

>>> Andoni Mayok eta Sonia Dominguezek lan bikaina egin zuten aurreko asteburuan jokatuako Uncastilloko lehenengoko txakurkrosean. Aragoiko ligaren barruko zortzi kilometroko proba horretan biak ala biak bosgarren izan ziren, euren mailetakoa laugarrenak kasu bietan. 70 parte-hartzaile inguru izan zituen 200 metroko desnibelarekin jokatuako lasterketak eta Andoni Mayo podiumetik minutu erdira ge-

ratu zen Dexter txakurrarekin, Sonia Dominguezek Deltarekin parte hartzen zuen bitartean. Proba horretan debutatu zuten txakurkros modalitatean Eibar Rugbyko senior mailako taldean jokatzeko Lucía Moyak eta Maitane Ibañezek, hurrenez hurren Zeus eta Oreo txakurrekin parte hartu zutenak. Gure herriko ordezkariak Etxarri-Aranatzen izango dute hurrengo hitzordua, domekan jokatu den proban.

Urrezkoa eta brontzezko bi Gipuzkoako junior txapelketetan

>>> Aurreko zapatuan Gipuzkoako junior mailako judo txapelketak jokatu ziren Hondarribiko Jostaldi frontoian eta bertan Kalamuako lau kirolarik hartu zuten parte. Emaitzak, ia betiko lez, bikainak izan ziren: horrela, Maider Urizarrek urrezko domina irabazi zuen, eta Oihana Gonzalez eta Markel Simon brontzezkoaren jabe egin ziren. Gaizka Merinok ere hartu zuen parte torneoa, eta eurekin guztie-

kin izan ziren Nekane Muguruza eta Iker Martinez judoka handiak. "Emaitza paregabeak gure ordezkariak lortu dituztenak, kontuan izanda gainera maila goragoko aurkariei egin behar izan dietela aurre", diote Kalamuatik. Aldameneko argazkian txapelketan parte hartu zuten aipatuak lau judokak, Martinez eta Muguruza taldekideekin, behin saioa amaitu ondorengoko atsedean tartea aprobetxatuz.





Fran Lasuen eta Sandra Fernandez dira aktoreak.

Familia osoarentzako euskarazko antzezlana Fran Lasuenekin otsailaren 5ean Coliseoan

"Zuhaitzak landatzen zituen gizona" antzezlana eskainiko dute Coliseo antzokian datorren asteko zapatuan, arratsaldeko 17:00etan hasita. Teatro Gorakada konpainiaren eskuetik emango den euskarazko lan hori familia osoarentzat egokia da. "Bakardadean bete-betea sartuta dauden bi gizon ikusiko ditugu euren buruekin adiskidetzen. Atzean Europako historiaren gorabeherak, bi

mundu-gerrak, kontzientzia ekologikoaren sorrera, politikaren diskurtso hutsala... Hori dena naturarekiko ulermenetik, gizakiaren indar sortzailetik eta zehaztasun txikietik maitasunetik kontatuta", diotenez. Jean Gionno da egilea eta Jose Carlos Garciak zuzentzen du lana. Aktore lanetan, Fran Lasuen eibartarrarekin batera, Sandra Fernandezek jardungo du.

Kezka taldekoek "Korrotik Pikutara" eskainiko dute domekan Eskoriatzan

Domekan, 19:00etan, "Korrotik Pikutara" ikuskizuna eskainiko dute Kezka dantza taldekoek Eskoriatzako Zaldibar aretoan. Azaldu dutenez, "euskarazko dantzaren bilakaera ikusi eta gozatzeko aukera izango da. Korroan edo borobilean hasita, soka-dantza, ingurutxo, kontra-dantza eta dantza lotua pasata, dantza solteraino, gure dantzen ibilbidea erakutsiko eta dantzatzeko dugu". Zuzen-

neko musikarekin arituko dira Jose Migel Laskurain (txistua), Adolfo Jainaga (trikitixa), Quico Puges (biolontxelo), Gari Otamendi (arrabita) eta Iraide Ansorena (perkusioa). Gidaria Oier Araolaza izango da eta, berarekin batera, Jone Amuategi, Luken Aranburu, Idoia Lahidalga, Ainhoa Larrañaga, Jone Lahidalga, Mainer Altzibar eta Unai Txurruka arituko dira. Sarrerak 5 euro balio du.



"La danza de la vida" tailerra bihar goizean Helmet Housen

Bihar, hilak 29, goizeko 10:30etik eguerdiko 12:00ak arte iraungo duen tailerrean gorputzaren bidezko espresio mota bat landuko dute, sormena garatzeko aukera eskainiko duen musikaz lagunduta. Ainhitze Elizburuk zuzenduko duen saioan entzumena praktikatzera gonbidatuko digu, modu horretan konexio benetakoagoa lortzeko, bai bakoitzak bere buruarekin eta baita besteekin ere. Azken batean, bizitzaz gozatzeko bestelako aukera bat da eskaintzen zaiguna.



"Una joven prometedora" Pagatxaren zine-forumean

Datorren asteko barixakuan, otsailaren 4an, hilabete horretarako Pagatxa emakumezkoen elkarteak antolatutako zine-forum saioan Emerald Fennell-en "Una joven prometedora" filma eskainiko dute. Ohikoa denez, Portaleko areto nagusian izango da emanaldia, arratsaldeko 18:30ean hasita. Jarduera irekia eta doakoa da eta izena ematea ez da beharrezkoa. Emanaldiaren dinamizazioa Izaskun Rodriguez Elkoroaren esku joango da oraingo honetan.





Zuloagaren “Picador gitano” koadroa Arte Ederren Museoan ikus daiteke, martxora arte

Bilboko Arte Ederren Museoak XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako euskal artearen bilduma zabaldu du, hiru margolari esanguratsuren lan bana dohaintzan jasota. Bilduma pribatuetatik eskuratu ditu lanok, eta horien artean dago Ignacio Zuloaga pintore eibartarraren “Picador gitano” 1903ko lana; lan horrekin zezketen gaia lehen aldiz heldu da museoaren bildumara. Placido Arango enpresari eta bil-

dumatzailaren familiak ipini du koadroa museoaren eskura. Beste bi koadroak Anselmo Guinearen “La salla del maiz” (1893) eta Benito Barruetaren “Autorretrato” (1905 ingurukoa) dira. Hiru koadroak Arte Ederretako eraikinaren beheko solairuan jarri dituzte ikusgai, martxoaren 27ra arte; bitarte horretan eskuratutako obren eta haien egileen gaineko hiru hitzaldi antolatuko ditu museoak.



Urteko lehen kontzertua emango du Eibarko Musika Bandak domeka eguerdian

Eibarko Musika Bandak domekan ekingo dio urte berriko egitarauari, Coliseo antzokian eskainiko duen kontzertuarekin. Andoni Vazquezek zuzentzen duen bandak bost pieza joko ditu: ‘La puerta grande’ (Elvira Checa), ‘Los burladores’ (Pablo Sorozabal), ‘Marcha Eslava’ (P.

I. Tchaikovsky), ‘El honor de un caballero’ (M. A. Mas) eta ‘Los miserables’ (Michel Schönberg). Saioa 12:30ean hasiko da eta gonbidapenak Kutxabank bitartez edo Coliseoko leihatilari eskuratu daitezke (gaur 17:30etik 19:30era edo saioa hasi aurretik).



Vicente Iriondoren erakusketa

Gaur zabalduko dute Bergarako Aroztegi Aretoan “Aztarnak”, Vicente Iriondo eibartarraren erakusketa. Artistak dioenez, berak asmatutako kodigo baten arabera sortutako margolanek dira eta iazko urrian Soralaruzeko Oreka Art Galerian egon zen ikusgai erakusketa. Orduan esan zuenez, “testua da espresatzeko modu bat eta hauxe [pintura] da nire testua. Hemen ikusten dena neu naiz. Ez du behar beste azalpenik. Hortik aurrera, margolana ikusita, bakoitzari irudituko zaio iruditu behar zaiona”. Otsailaren 13ra arte joan daiteke ikustera, martitzenetik barixakura 18:00etatik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeka eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara (Argazkia: plaentxia.eus).

Sare sozialen arriskuak azaltzen

Gurasoak Martxan egitasmoaren barruan, “Sare sozialen erabilpen desagokiaren arriskuak” izenburuko hitzaldia emango dute eguaztenean, 18:00ean Portalean (areto nagusian). Seme-alabak bigarren hezkuntzan dauzkaten gurasoei zuzendutako saioa Baikorak eskainiko du, gazte-leraz. Presentzialki edo telematikoki parte hartu ahalko da eta, izena emateko, ikastetxe bakoitzeko Guraso Elkartearekin kontaktuan ipini daiteke edo, bestela, gizartekintza@eibar.eus helbidera idatzi (azken eguna martitzena izango da). Online parte hartzea aukeratzen dutenei egunean bertan bidaliko diete sartu beharreko esteka.




Bertoko eta urrutiko ipuinak

Nerea Ariznabarreta ipuin-kontalariak eta Mariano Hurtado musikariak bertoko eta urrutiko ipuinak kontatuko dituzte bihar, 18:00etan, Portaleko areto nagusian, “Zapatuko ipuina” egitasmoaren barruan antolatutako saioan. Sarrera doan izan arren, plaza mugatuak direla eta, aurretik izena eman dutenei baino ez zaie lagako sartzeko.



Urtarril hotza, neguaren bihotza. RAY MUÑOZ



“Sare sozialetan ere euskaraz” kanpaina abian da

Gure herria merkataritza-gune bilakatu da azkeneko urteotan, industria-hiritik zerbitzu-hiria izatera pasatu dela esan dezakegu. Eibartarrok ezezik inguruko herrietako biztanleak ere gurera gerturatzen dira erosketak egitera. Denok estimatzen dugu bertoko dendarien gertutasuna, produktuen kalitatea eta bezerooi egokitutako aholkuak jasotzea, eta nola ez! euskaraz jarduteko aukera izatea.

Badira hilabeteak ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibarko Udaleko Euskara eta Ekonomia eta Garapena Sailak, EMGI eta Dendari Elkarteak elkarlanean ari direla Eibarko merkataritza eta bertoko hizkuntza, euskara, sustatzeko. Horren barruan, eta neguko beherapen-kanpainan erabat murgilduta, gure dendariak horrenbeste erabiltzen dituzten sare sozialetan burutuko den kanpaina abiatu dute.

Pandemiak bezeroekin komunikatzeko bide berriak zabaldu zituen eta sare sozialek berebiziko garrantzia eskuratu zuten. Baina, sarritan, aurrez aurrekoan gertatzen zaigun bezala, euskararen presentzia ez

da izan nahiko genukeen bezain handia. Horregatik, sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko asmoarekin, “sare sozialetan ere euskaraz” kanpaina abiatu dute aipatutako eragileek.

Kanpaina urtarrilaren 24an hasi eta otsailaren 7ra bitartean gauzatuko bada ere, helburua ohiturak aldatzea ere bada, hau da, orain arte erderaz idazten zutenek euskaraz ere idaztera animatzea edota bideo eta *storyak* ere euskaraz egitea.

Parte hartzea oso erraza da, establezimenduko Instagram edo Facebookeko kontuan egiten den argitalpena euskaraz egin edota irudiari lotutako testua euskaraz idatzi eta on-

dorengo traolak erabili behar dira: #eibarrenbadakagu eta #erosieibarren.eus


Ohiko esaldiekin proposamen bat ere luzatu zaie merkatariei: (QRaren bidez PDF formatoan deskargatu daiteke.



Kanpainari amaiera emateko parte-hartzaile guztien argitalpenekin bideo polit bat osatuko da.

Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko asmoz jarri da martxan kanpaina

Bide batez, ...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskaraz Primeran! programaren barruan doaneko itzulpen- eta zuzenketaz-zerbitzua eskaintzen duela gogorarazi nahi du. Edozein argibidetarako 943200918 telefonora deitu. ■



L
A
B
I
R
I
N
T
O
A

9	3			7			1	
6	7	8		1				
							3	
4		5	8				9	
	9			5	1		6	
	6							
			6		5	4	2	
5			2				6	9

8	2	8	1	3	1	3
2	7	6	9	2	8	5
9	1	5	2	7	6	4
4	6	3	8	1	9	7
7	9	4	5	6	2	8
1	3	9	7	8	4	6
6	8	2	4	5	3	7

soluzioa

S
U
D
O
K
U

8	8	2	0	1	6	2	2
5	9	4	6	2	1	9	8
6	1	2	7	8	9	6	4
4	6	9	1	6	5	2	9
6	2	9	8	7	2	5	1
1	7	6	2	2	2	8	6
2	6	7	1	9	8	5	3
7	5	6	2	4	8	1	9
9	8	1	6	8	7	4	2

soluzioa

2			5				
	1	9				5	4
5		8					
	8	7		2		5	
1			7		8		9
		2		9		8	3
						2	3
8	4					7	6
				6			8

Urtarrilak 28 / Otsailak 4

ZAPATUA 29

BIODANTZA

10:30/12:00 "La danza de la vida" (Biodantza). Doan. Irakaslea: Ainhitze Elizburu. Helmet House.

Helmet Wellness



IKASTAROA

11:00/13:00 San Blas opilak egiteko ikastaroa. Irakaslea: Edurne Zenarruzabeitia. Arrate Kultur Elkarte.



NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eu/astelenaparkea/> eu. Errebal Plaza, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.

KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldetako pista berdea.

ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Bertoko eta urrutiko ipuinak", Nerea Ariznabarreta ipuin-kontalariaren eta Mariano Hurtado musikariaren eskutik. Portalea (areto nagusia).



DOMEKA 30

KONTZERTUA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseo antzokia.



KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldetako pista berdea.

DOMEKAK KIROLIAN

17:45/19:45 Kirola eta jolasak, 8-11 urte arteko haurrentzat. Ipuru kiroldetako pista berdea.

MARTITZENA 1

IBILBIDE OSASUNTUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

EGUAZTENA 2

GURASOAK MARTXAN

18:00 "Sare sozialen erabilpen desegokiaren arriskuak" hitzaldia. Portalea (areto nagusia).

EGUENA 3

SANBLASEN BEDEINKAPENA

10:30 Azitaingo elizan.
10:30 Urkiko elizan.
11:00 San Pio X.a elizan.
11:00/12:00 San Andres elizan.
11:00/19:00 Karmelitetan.
12:00 San Agustinen (Estaziño).
12:00 Amañako elizan.



ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 31ra arte:

– **JULIAN RUIZ-en argazkiak** (Depor taberna)
– **"KALEAK", Fernando Solanaren argazkiak** (Portalea jatetxea)

Otsailaren 20ra arte:

– **"CORNALES, COLLARES, URTAROAK, NÁBULASY OTRAS OBRAS", Josué Pena** (Portalea)

ESKUALDEKO agenda

ERMUAN

KONTZERTUA

28an (barixakua) / 20:30
Ermuko Antzokia

El Drogas. Enrique Villarrealen azken diskoa eta klasikoak, zazpi musikariz lagunduta. Sarrerak (12 euro) Lobiano Kulturgunean eta Kutxabank-eko webgunean.



ELGOIBARREN

KONTZERTUA

28an (barixakua) / 20:30
Herriko Antzokia

Ruper Ordorika. "Amour eta toujours" azken diskoa eta klasikoak. Sarrerak (10 euro) herrikoantzokia.eus webgunean.



DOKUMENTALA

29an (zapatua) / 18:00
Kultur Kafea

"Suharra". Iñaki Agirrezabalagaren filma. Gure arbasoen ondareari buruzkoa.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Maria Martinez Garcia.** 93 urte. 2022-1-24.
- **Maria Antonia Etxebarria Izeta.** 91 urte. 2022-1-24.
- **Luisa Rebollo Castañeda.** 94 urte. 2022-1-24.
- **Paulino Valdes Etxebarria.** 69 urte. 2022-1-25.
- **Virginia Herrera Cañas.** 48 urte. 2022-1-25.
- **Maria Gisasola Txurruka.** 96 urte. 2022-1-25.

Jaiotakoak

- **Suhaila Errahil Cossio.** 2022-1-13.
- **Aziza Heya Handi.** 2022-1-16.
- **Danae Calle Duarte.** 2022-1-20.
- **Jon Etxaniz Agirregomezkorta.** 2022-1-22.

Farmaziak

- BARIXAKUA 28**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- ZAPATUA 29**
EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 30**
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- ASTELEHENA 31**
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- MARTITZENA 1**
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- EGUAZTENA 2**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- EGUENA 3**
EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)
- BARIXAKUA 4**
EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)



M^a ANGELES ARRIZABALAGA BILBAO

III. URTEURRENA: 2019-1-29

“ZURE HUTSUNEA EZIN DA BETE.
GURE OROIMENEAN ZAITUGU,
AMATXO LAZTANA!”

ETXEKOAK



MAIALEN LOPEZ IGLESIAS

12. URTEURRENA (2010-1-30)



“Betirako zaude gurekin. Zein erraza
zu maitatzea, ezinezkoa ahaztea”

ETXEKOAK



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure sende edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobe eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **OIER**, atzo 4 urte bete zenduaz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, zure arreba Juleren partez.



Zorionak, **XUHAR**!! Eguaztenian 7 urte egin zenduaz-eta. Musu bat amama, aitxitxa, Euken, Paule eta zure arreba Julenen partez.



Zorionak, **ANDER**!! Bixar 14 urte!! Ederto ospatu eguna, famelixa eta lagun giruan. Patxo asko etxeko guztien partez.



Zorionak, **NAHIA**! Domekan 4 urte beteko dozuz-eta! Patxo potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, **JAKES**! Astelehenian 3 urte beteko dozuz! Pilla bat maite zaittugu! Aitatxo, amatxo, Ekhi eta Pauleren partez zaku bete musu!



Zorionak, **POL**! Martitzenian 3 urte bete zenduaz-eta. Besarkadia etxekuen eta, batez be, Danelen partez. Ask maite zaittugu, txapeldun.



Zorionak, **UXUE**!! Domekan 7 urte, printzesa!! Infinito maite zaittugu!! Musu pillo bat famelixaren eta, batez be, Ibaitxoren partez!!



Zorionak, **JON**! Atzo 10 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ARRATE**, 15. urtebetetzian. Egun eta urte ederra izan deizula. Musu haundi bat zure famelixaren eta lagun partetik.



Zorionak, **ALBA**, domekan 13 urte beteko dozuz-eta. Ondo ospatu. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, **ELENE**, hillaren 26xan 5 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat aitxitxa, amama eta Zumaren partez.



Zorionak, **MIKEL** eta **ANDER**, hillaren 26xan 5 urte egin zenduz-eta. Etxeko guztien partetik.



Zorionak **LEO** (3 urte bete zenduaz martitzenian) eta **SARA** eta **IRENE** (urtetxua egin zenduz-eta hillaren 7xan). Musu haundi bana etxeko danon partez! Bat, bi eta hiru!!!

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **29an:** 16:00, 19:00, 22:00
- **30ean:** 17:00, 20:00 (Antzokia)
- **31n:** 20:30 (Antzokia)

"El método Williams"

Zuzendaria: Reinaldo Marcos



1 ARETOA

- **29an:** 19:45 (2 Areto), 22:30 (2 Areto)
- **30ean:** 20:00
- **31n:** 20:30

"Delicioso"

Zuzendaria: Eric Besnard



2 ARETOA

- **29an:** 17:00, 19:45 (Ant), 22:30 (Ant)
- **30ean:** 17:00, 20:00
- **31n:** 20:30

"No somos nada"

Zuzendaria: Javier Ciorcuera



ANTZOKIA

- **29an:** 17:00
- **30ean:** 17:00

"El valle de las linternas"

Zuzendaria: Caleb Hystad



Iragarki laburrak


943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

2. MOTORRA

2.1. Salgai

- Furgoneta bat alokatuko nuke egotira onean. Etxe-aldaketa bat egiteko, otsailaren 26tik martxoaren 2ra arte. Tel. 617265575. Avelina..

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje zabala alokagai San Pion. Tel. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta bulegoak edo etxebizitzak garbitzeko. 11 urtetako esperientzia. Tel. 643574998.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631412316.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 643584198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxe-ko garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631308259.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita erresidentzietan ere. Zaintzaile ziurtagiriarekin. Tel. 642403764.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 674457727.
- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketarako edota etxe-ko lanak egiteko. Autoarekin. Orduka ere lan egiteko prest. Tel. 657794652.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 641421135.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernetan lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 642846905.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653236017.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643565742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. Tel. 632642320.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Externa. Tel. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Autoarekin. Tel. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Erreferentziak, gida-baimena eta titulatuarekin. Tel. 689571882.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Orduka. Baita gauzez ere. Tel. 602490595.

4.2. Langile bila

- Estetizista behar da. Tel. 605770226..

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Dibujoteknikoko irakaslea behar da Eibarren. Batxilergo Artistikoko 1. mailarako. Tel. 664391026.
- Ingelesko irakaslea behar da Elgoibarko akademia batean. Tel. 667261248.
- Ingelesko partikular irakaslea behar du Erasmus prestatzeko. Tel. 616479840.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate sarriderako klaseak ematen dira, goizek eta arratsaldez. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Ohe-buru eta oinak (1'35x1'90), mesilla, komoda, sarrerako altzaria, bisilla eta zutikako mahaia (marmolezko gaineestalkiarekin) salgai. Oso merke. Tel. 627008888. Carmen.
- Egongelarako mahai handia eta erdirako mahai txikia salgai. Biak kristalezkoak eta oso egoera onean. Prezio interesgarria. Tel. 606882043.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Hilaren 15ean mendiko guante batzuk topatu nituen Arrate inguruan. Tel. 653724549.


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

+ osasun gida

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Deglutzio atipikoa	TDAA
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA

 838200124
kolegiatu zabaldu

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

 **AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegua
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G211907 kolegiatu) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Okulistak

 **Recalde**
Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

- Miopia ebakuntzak
(femtosegundoko laserrarekin)

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



 BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746


PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu Zbka.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu Zbka.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu Zbka.)

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
GUREZ ETA ARRATZALDEZ
Urkiizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

PODOLOGOA

 **Moider
Lopez
Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia

 **PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

EIBAR
estaziño
ERAIKINA



Eibarko zure geltoki berria

Fase berria
salgai.
Informa
zaitez!

Prezioak
115.000 €tik
aurrera

- 1, 2 eta 3 logelako etxebizitza argitsuak terrazekin
- Terraza edo balkoi zabala etxebizitza guztietan
- Ingurune ireki eta hiritarra, erosotasun guztiez inguratua
- Errebal merkataritza-gune berritik 70 metrora
- Etxera igogailu bidez sarbide zuzeneko **garajeak**
- Zure etorkizuneko etxea **pertsonalizatzeko** hainbat aukera

www.estaziño.com

www.egogain3.com

EGOGAIN3

Teilatupeko atikoa: Harribitxi bakarra
Eibarko erdialdean **terrazza eta
solariumarekin.**

www.urkizu4.com

URKIZU4

3 logela, hegoalderantz terrazekin:
EGUZKIA URTE OSOAN.
Logela bateko etxebizitzak ere bai.



Informa zaitez sustapen hauei eta beste batzuei
buruz gure webgunean edo idatzi helbide
honetara: comercial@grupoeibar.com

www.grupoeibar.com

EIBARKO BULEGOA: Ibarkurutze plaza 10

943 31 66 11 • 679 032 342